III. Mapas de representación geográfica de la significación estadística o certeza

En la parte inferior de cada página, se muestra el mapa de probabilidades o de certeza, donde se representan los municipios en los que existe una alta probabilidad de que el riesgo sea mayor o menor al promedio del conjunto de la CAPV. En estos mapas se han utilizado dos secuencias de colores: lilas para los municipios con riesgo elevado y verde para los municipios con menor riesgo. La escala representa la probabilidad de que el riesgo sea mayor de 1.



EAE n, 2003tik 2008ra bitartean, 70.646 neoplasia primario gaizto erregistratu ziren. Gainera, Nerbio Sistema Zentraleko tumore onberak eta zalantzazko gaiztotasundun tumoreak ere sartu dira (n=1.059). Kasuen %61 gizonezkoak ziren, eta, batez beste, 66 urte zituzten.

Gizonezkoetan, Bizkaian, gehiegizko arrisku esanguratsua ikusten da zortzi udalerritan: Bilbo, Erandio, Ermua, Muskiz, Abanto-Zierbena, Trapagaran, Barakaldo eta Sestao; Gipuzkoan, udalerrri hauetan ikusten da: Pasaia, Errenteria (IAEI: 1,04), Eibar, Hernani eta Soraluze; eta Araban, berriz, Gasteizen. Emakumezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua ageri da hiru hiriburuetan: Bilbo (IAEI: 1,03), Donostia (IAEI: 1,03) eta Gasteiz (IAEI: 1,02).

Badira zenbait faktore minbizi-kausa saihesgarritzat jotzen direnak. Horien artean, tabakoak jarraitzen du faktorerik garrantzitsuen izaten, ondoren dituela obesitatea, alkohol gehiegi edatea eta zenbait dietetika-faktore ere. Minbizi-diagnosi berrien %40 eta minbiziak eragindako heriotza guztien %50 faktore horiei egotz dakizkiekeela zenbatetsi da (15). Hainbat tumoreren barruan zehaztuko ditugu beste zenbait eragile: erradiazioa ionizatzaileak, infekzioak, hormona-faktoreak, etab. (16;17).

Prebentzio-estrategiak bizitza-ohitura osasungarriak hartzera zuzenduko dira, eta infekzio jakin batzuk prebenitu edota tratatzera, bai eta bahetze-programetan parte hartzera ere.


En la CAPV, en el periodo 2003-2008, se registraron 70.646 neoplasias primarias malignas. Además se han incluido los tumores benignos y de malignidad incierta del Sistema Nervioso Central (n=1.059). El 61% de los casos se produjeron en hombres y la edad media fue de 66 años.

En hombres, en Bizkaia, se observa un exceso de riesgo significativo en ocho municipios: Bilbao, Erandio, Ermua, Muskiz, Abanto y Ciérvana, Trapagaran, Barakaldo y Sestao; en Gipuzkoa se observa en Pasaia, Errenteria (RIEs: 1,04), Eibar, Hernani y Soraluze; y en Araba en Gasteiz. Entre la mujeres se observa un exceso de riesgo significativo en las tres capitales: Bilbao (RIEs: 1,03), Donostia (RIEs: 1,03) y Gasteiz (RIEs: 1,02).


Existe una serie de factores establecidos como causas de cáncer potencialmente evitables. Entre ellos, el factor más importante sigue siendo el tabaco, seguido de la obesidad, el consumo excesivo de alcohol y algunos factores dietéticos. Se estima que hasta un 40% de los nuevos cánceres diagnosticados y el 50% de todas las muertes por cáncer son atribuibles a estos factores (15). Otros agentes, tales como las radiaciones ionizantes, las infecciones, factores hormonales, etc., (16;17) se irán detallando en los distintos tumores.

Las estrategias preventivas deben dirigirse a la adopción de hábitos de vida saludables y a prevenir o tratar ciertas infecciones, así como participar en los programas de cribado.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Aho-barrunbeko, faringeko, listu-guruinetako eta sudur-bideetako minbiziak sartu dira; EAEn 2003tik 2008ra bitartean diagnostikatutako minbizi guztien %3,7 dira. Gizonezkoetan gehien diagnostikatzen diren minbizien artetik, bosgarren tokian daude. Erregistratutako 2.549 kasuetatik %79 gizonezkoa zen. 72 urte zituzten, batez beste, diagnostia egin zitzaizkion.

Gizonezkoetan bi eremu desberdin identifikatu dira: Eremu batean, gehiegizko arrisku esanguratsua dutela, Bizkaiko 15 udalerrri (Barakaldo, Sestao, Portugalete, Trapagaran, Ortuella, Abanto-Zierbena, Muskiz, Erandio, Leioa, Galdames, Gūeñes, Arrigorriaga, Basauri, Zamudio eta Mungia) eta Gipuzkoako hiru udalerrri (Pasaia, Errenteria eta Lezo); beste eremuan, arrisku txikiarekin, Araba ia guztia, eta, Gipuzkoan, Deba eta Urola bailaretako udalerrri gehienak. EAeko emakumezkoetan minbizi-mota horrek izan duen intzidentzia txikia dela eta, ezin da udalerrri mailako desberdintasunik identifikatu.

Aho-barrunbe eta faringeko tumoreen arrisku-faktorarik garrantzitsuenak tabakoaren eta alkoholaren kontsumoak dira. Bi horiek nahasita, eraginak biderkatu egiten dira. Deskribatutako beste arrisku-faktore batzuk: infekzioak (Epstein-Barr, nasofaringeko minbizian; GPB orofaringeko minbizian), dieta-ko fruta- eta barazki-eskasia, eta lanbide-faktoreak (16-18).

Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa kontrolatzea litzake eraginik handieneko prebentzio-neurria.


Se incluyen cánceres de cavidad bucal, faringe, glándulas salivares y pasajes nasales que representan el 3,7% del total de los cánceres diagnosticados entre 2003 y 2008 en la CAPV. Son el 5º cáncer diagnosticado con más frecuencia en los hombres. De los 2.549 casos registrados, el 79% eran hombres. La edad media en el momento del diagnóstico fue 72 años.

En hombres, se han identificado dos áreas diferentes: una con exceso de riesgo significativo en 15 municipios de Bizkaia (Barakaldo, Sestao, Portugalete, Trapagaran, Ortuella, Abanto y Ciérvana, Muskiz, Erandio, Leioa, Galdames, Gūeñes, Arrigorriaga, Basauri, Zamudio y Mungia) y en tres municipios de Gipuzkoa (Pasaia, Errenteria y Lezo), y otra de bajo riesgo que abarca casi la totalidad de Araba y gran parte de los municipios del Valle de Deba y Urola en Gipuzkoa. La baja incidencia de este cáncer en mujeres de la CAPV no permite identificar diferencias a nivel municipal.


Los factores de riesgo más importantes para los tumores de cavidad oral y faringe son el consumo de tabaco y alcohol. Ambos combinados, los efectos se multiplican. Otros factores de riesgo descritos son: infecciones (Epstein-Barr para cáncer de nasofaringe; VPH para cáncer de orofaringe), dieta pobre en fruta y vegetales, así como factores ocupacionales (16-18).

El control del consumo de tabaco y alcohol sería la medida preventiva con mayor repercusión.

Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Raz n de Incidencia Estandarizata suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Esofagoko minbizia izan zen 8. minbizirik ugariena 2008an, tumore guztien %3,8, hain zuzen (19). EAEn, 2003tik 2008ra bitartean, beste 936 kasu erregistratu ziren (%1): %70, zelula ezkatatsuetako neoplasiak eta %20, adenokartzinomak. %86 gizonezkoa zen eta, batez beste, 65 urte zituzten diagnostikoa egin zitzaienean.

Udalerrien mapan, estatistikoki esanguratsua ez den gehiegizko arriskua ikusten da gizonezkoen artean, bost udalerritan: hiru Bizkaian (Barakaldo, Trapagaran eta Santurtzi) eta bi Gipuzkoan (Arrasate eta Tolosa); lurraldearen gainerakoan ez da desberdintasunik ikusten. Emakumezkoen artean arrisku handiagoa ikusten da, esanguratsua ez bada ere, udalerrri hauetan: Donostia, Andoain, Astigarraga, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Zizurkil.

Hauek dira arrisku-faktoreak: tabakoa, alkohol gehiegi edatea, errefluxu gastroesofagikoa (Barrett-en urdaila eta akalasia) eta obesitatea; lehenengo biak, batez ere, zelula ezkatatsuetako neoplasiekin lotzen dira, eta beste biak, adenokartzinomekin (20). Bi tumore-motak fruta eta barazki gutxiko dietekin lotzen dira (21). Lanbide-inguruari dagokionez, arrisku-faktoreak dira tetrakloroetilenoaren eta kedarraren eraginpean egoitea ere (22).

Tabakoa baztertzea, alkohol-kontsumoa mugatzea, fruta eta barazki ugari dieta egitea eta obesitatea saihestea dira gomendatutako prebentzio-neurriak.


El cáncer de esófago fue el 8º cáncer más frecuente en el mundo en 2008, suponiendo un 3,8% del total de tumores (19). En la CAPV durante 2003-2008 se registraron 936 casos nuevos (1%); 70% fueron neoplasias de células escamosas y 20% adenocarcinomas. El 86% eran hombres con una edad media en el momento del diagnóstico de 65 años.

En el mapa municipal, entre los hombres se observa un exceso de riesgo estadísticamente no significativo, en cinco municipios: tres en Bizkaia (Barakaldo, Trapagaran y Santurtzi) y dos en Gipuzkoa (Arrasate y Tolosa); en el resto del territorio no se observan diferencias. Entre las mujeres, se observa un mayor riesgo, que tampoco es significativo, en los municipios de Donostia, Andoain, Astigarraga, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta y Zizurkil.


Son factores de riesgo: el tabaco, el consumo excesivo de alcohol, el reflujo gastroesofágico (esófago de Barrett y acalasia) y la obesidad; los dos primeros se asocian fundamentalmente a las neoplasias de células escamosas y los otros dos al adenocarcinoma (20). Ambos tipos de tumor se asocian a una dieta con bajo contenido en frutas y verduras (21). Son además factores de riesgo en el medio laboral la exposición a tetracloroetileno y al hollín (22).

Prescindir del tabaco, limitar el consumo de alcohol, seguir una dieta rica en fruta y vegetales y evitar la obesidad son las medidas de prevención recomendadas.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



2008an, urdaileko minbizia izan zen diagnostikatutako kasu berrien %8, bai eta minbiziak eragindako %10 heriotzen arrazoi ere, (19) mundu mailan. EAEn laugarren tumorerik ugariena da. 2003tik 2008ra bitartean, urdaileko 2.995 minbizi diagnostikatu ziren; minbizidun horien %80k 61 urte baino gehiago zituen, eta %64 gizonezkoa zen.

Mundu guztian ari da gutxitzen horren intzidentzia azken hamarkadetan; batez ere, hozte-sistemak daudelako eta *Helicobacter pylori* eragindako infekzioari tratamendua jartzen zaiolako (23).

Udalerrika, gehiegizko arriskua ikusten da hala gizonezkoetan nola emakumezkoetan; eta, probabilitate-mapak adierazten duenez, esanguratsua da Gasteizen.

Ebidentzia sendoak daude *Helicobacter pylori*ren infekzio kronikoak urdaileko minbizia izateko arriskua gehitzen duela sinesteko (20). Gainera, oraintsuko ikerketa batzuen arabera, arriskuaren igoerak zerikusia du tabakoarekin, fruta eta barazki gutxiko dietarekin, eta baita prestatutako elikagaiak eta gazituak jatearekin ere (16). Bada kasu-proporzio bat, lanbidea dela-eta zenbait elementuren eraginpean egoteari (amianto, beruna, kautxua) eta erradiazio ionizatzaileei egotz dakiekena (22).

Erretzeari uzteak eta fruta eta barazki ugari eta gatzak neurritik kentzea asko lagun dezake urdaileko minbiziari aurre hartzen.

Se estima que durante el año 2008 el cáncer de estómago fue responsable del 8% de los casos nuevos y del 10% de las muertes por cáncer (19) a nivel mundial. En la CAPV, es el 4º tumor más frecuente. En el periodo 2003-2008 hubo 2.995 diagnósticos de cáncer de estómago, de los cuales el 80% eran mayores de 61 años y el 64% hombres.


Su incidencia está disminuyendo en las últimas décadas en todo el mundo, debido principalmente a la disponibilidad de refrigeración y al tratamiento de la infección por *Helicobacter pylori* (23).

Por municipios, se observa un exceso de riesgo tanto en hombres como en mujeres que, como refleja el mapa de probabilidades, es significativo en Vitoria-Gasteiz.


Hay evidencia convincente de que la infección crónica por *Helicobacter pylori* aumenta el riesgo de cáncer de estómago (20). Además, recientes estudios refieren un incremento de riesgo asociado al tabaco, a una dieta pobre en frutas y verduras, así como a un consumo de alimentos elaborados y en salazón (16). Existe también una proporción de casos atribuibles a la exposición ocupacional (amianto, plomo, caucho) y a la radiación ionizante (22).

El abandono del hábito de fumar, una dieta rica en verduras y fruta y moderada en sal pueden contribuir a la prevención del cáncer de estómago.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Koloneko eta ondesteko minbizia hirugarren minbizi-mota da maiztasunean eta laugarrena, hilkortasunean, mundu mailan (19). EAEn, bigarren tokia hartu du 2003tik 2008ra bitarteko urteetan, eta erregistratu diren minbizi guztien %14 da. Diagnostikatu diren 10.115 kasuetatik, %63 gizonezkoak ziren, eta %95ak 50 urte baino gehiago zituen. Intzidentziak gora egin du mundu osoan, AEBtan izan ezik.

Gizonezkoen artean gehiegizko arrisku esanguratsua ikusten da Bizkaiko bost udalerritan (Bilbo, Barakaldo, Trapagaran, Sestao eta Erandio) eta Gipuzkoako bitan (Erreterria eta Irun). Emakumezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua Santurtzin eta Leioan ikusten da.

Arrisku-faktoretzat hartzen dira minbiziaren familia-aurrekariak edo lesioa aitzindari jotzen diren polipo adenomatosoak. Alkohol-kontsumoarekin, gehiegizko pisuarekin eta obesitatearekin ezarri da kausazko lotura (20;24). Gainera, fruta, barazki eta zuntz gutxi dietarekin eta haragi gorria eta tabakoa kontsumitzearekin ere erlazionatu da tumore hori (16;25)

Europar Batasuneko Batzordeak gomendio bat eman zuen, 2003an (26), biztanleriaren bahetze-programak abiatzeko, gorotzetako odola atzemateko probak eginez 50etik 74 urtera bitarteko biztanleen artean. EAEn, 2009an abiatu zen kolon-ondesteko minbiziaren screening-a. Badago nahikoa ebidentzia ariketa fisikoa egiteak duen eragin prebentiboaz ere (27). Orobat, barazki, fruta eta zuntz ugari jatea gomendatzen da, eta tabakoa erretzeari eta alkohol gehiegi edateari uztea.


El cáncer de colon y recto es el tercer cáncer en frecuencia y el cuarto en mortalidad a nivel mundial (19). En la CAPV durante los años 2003-2008 ha ocupado el 2º lugar, suponiendo el 14% de todos los tumores registrados. De los 10.115 casos diagnosticados, el 63% correspondían a hombres y el 95% eran mayores de 50 años. Su incidencia está aumentando en todo el mundo, excepto en EEUU.

Entre los hombres se observa un exceso de riesgo significativo en cinco municipios de Bizkaia (Bilbao, Barakaldo, Trapagaran, Sestao y Erandio) y en dos de Gipuzkoa (Erreterria e Irun). Entre las mujeres se observa un exceso de mayor riesgo, significativo, en Santurtzi y Leioa.


Como factores de riesgo se incluyen los antecedentes familiares de cáncer o los pólipos adenomatosos considerados lesiones precursoras. La asociación causal ha sido establecida para el consumo de alcohol, sobrepeso y obesidad (20;24). Además, este tumor se ha asociado a dieta baja en frutas, verduras y fibra y al consumo de carnes rojas y tabaco (16;25).

La Comisión de la Comunidad Europea emitió en 2003 (26) la recomendación de puesta en marcha de programas de cribado poblacional mediante la prueba de detección de sangre oculta en heces a la población entre los 50 y 74 años. En la CAPV el screening de cáncer colorrectal se puso en marcha en 2009. También hay evidencia suficiente del efecto preventivo del ejercicio físico (27). Asimismo, se recomienda la ingesta de vegetales, fruta y fibra y abandono del tabaco y consumo excesivo de alcohol.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Raz n de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Gibeleko minbizia munduan ugarienetakoa da. EAEn, 2003tik 2008ra, 2.764 kasu erregistratu ziren: %70, gibelekoak eta %30, maskuri eta behazun-hodietakoak. Gibeleko gaitza hiru aldiz gehiagotan gertatzen da gizonezkoetan emakumezkoetan baino, eta behazunekoak, berriz, 2,6 aldiz gehiagotan emakumezkoetan. 70 urte zituzten, batez beste, diagnosia egin zitzaizen unean.

Gizonezkoen artean badira EAeko oro har baino arrisku handiagoko ereduak Bizkaian (Bilbo, Barakaldo eta Santurtzi), bai eta arrisku txikiagokoak ere Gipuzkoako Ekialdean. Emakumezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua ikusten da Barakaldon, eta arrisku txikiagoa, berriz, Donostian; Araban ez da ezberdintasunik ikusten EAerekiko

Garbi dago arrisku-faktoreak direla B eta C hepatitisaren birusak eragindako infekzioak. Infekzio horiek dira, aflatoxinen eraginpean egotearekin batera, minbizien zati handi baten erantzule, garatze-bidean dauden herrialdeetan (28). Aldiz, herrialde garatuetan, pisu handiagoa dute alkohol-kontsumoak eta sindrome metabolikoak (29). Hauek dira beste arrisku-faktore batzuk: tabakoa (20), diabetesa eta obesitatea, eta kartzinogenoen eraginpean egotea lan-ingurunean (binil-kloruroa, erradiazio ionizataleak) (22). Behazuneko minbizian, etniaz eta adinaz gain, garrantzia hartzen dute hantura kronikoek ere (30).

Gure ingurunean, alkohol-kontsumoa kontrolatzea da funtsezko prebentzio-neurria. Gainera, B hepatitis (txerto bidez) eta C hepatitis (odoleko eta haren eratorrietako birus-baheketaren bidez) prebenitzea ere gomendatzen da.


El cáncer hepático es uno de los cánceres más frecuentes en el mundo. En la CAPV entre 2003-2008 se registraron 2.764 casos, 70% en hígado y 30% en vesícula y vías biliares. La afectación hepática es 3 veces más frecuente en hombres y la de vesícula 2,6 veces más frecuente en mujeres. La edad media en el momento del diagnóstico fue 70 años.

Entre los hombres se observan zonas de riesgo superior al de la CAPV en Bizkaia (Bilbao, Barakaldo y Santurtzi) y zonas con riesgo inferior en Gipuzkoa Este. Entre las mujeres, en Barakaldo se observa un exceso de riesgo significativo y en Donostia se observa un menor riesgo; no se observan diferencias en Araba con respecto a la CAPV.


Son factores de riesgo bien establecidos la infección por el virus de la hepatitis B y C; estas infecciones junto con la exposición a aflatoxinas son responsables de gran parte de los cánceres en países en vías de desarrollo (28). En cambio, en países desarrollados el consumo de alcohol y el síndrome metabólico tienen un mayor peso (29). Otros factores de riesgo son: el tabaco (20), la diabetes y obesidad y la exposición a carcinógenos en el medio laboral (Cloruro de vinilo, radiaciones ionizantes) (22). En el cáncer de vesícula, además de la etnia y la edad, adquieren importancia las inflamaciones crónicas (30).

En nuestro medio, la medida preventiva fundamental es el control del consumo de alcohol. Además, se recomienda la prevención de la hepatitis B (vacuna) y C (cribado del virus en sangre y derivados).


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Raz n de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Laringeko minbizia, 2008an, gizonezkoetan zenbatetsitako minbizien %2 da mundu mailan, eta 13. tokian dago (19). 2003tik 2008ra, 10. lekua hartu zuen EAEn, beste 1.421 kasu diagnostikatu baitziren. %94 gizonezkoa zen, eta, diagnosia egin zitzaizen unean, batez beste, 62 urte zituzten.

Gizonezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua dago Bizkaiko herri hauetan: Bilbo, Ortuella, Abanto-Zierbena, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Ermua. Gipuzkoan, EAEn baino esanguratsuki txikiagoak dira IAEI-ak lurraldearen zati handi batean, eta Araban, ez da desberdintasunik ikusten. Emakumezkoen artean, ez da inongo geografia-eredurik identifikatu, kasu-kopurua oso txikia baita, eta ondorioz, ez da mapan jaso.

Arrisku-faktorerik garrantzitsuena tabakoa da. Alkohola arrisku-faktoretzat hartzen da, bai isolatuki, bai tabakoari lotuta; bi faktoreak batera ematen direnean, izan ere, erasana biderkatzailea da. Gainera, gora egin du minbizi-mota horrek erradioterapia-tratamenduaren ondorengo bigarren tumore-mota gisa (31). Lotura mugatu bat ere badauka Giza Papilomaren Birusaren (GPB) 16 serotipoak eragindako infekzioarekin (17). Kasuen ehuneko txiki bat lanbide-faktoreekin lotzen da (32). Fruta eta barazkiak jateak duen eragin babeslea ere deskribatzen da (16).

Prebentzio-neurrien artean tabakoa uztea eta alkohola neurriz kontsumitzea aipatzen dira.


El cáncer de laringe supone el 2% de los cánceres estimados en los hombres en 2008 a nivel mundial, ocupando el 13er lugar (19). En la CAPV, durante 2003-2008, ocupó el 10º lugar con 1.421 casos nuevos. El 94% eran hombres y la edad media de 62 años en el momento del diagnóstico.

Entre los hombres, existe un exceso de riesgo significativo en Bilbao, Ortuella, Abanto-Zierbena Santurtzi, Portugalete, Sestao, y Ermua, en Bizkaia. En Gipuzkoa, las RIEs son significativamente inferiores a las de la CAPV en gran parte del territorio y en Araba no se observan diferencias. Entre las mujeres, dado el escaso número de casos, no se identifica ningún patrón geográfico, por lo que el mapa no se ha representado.


El factor de riesgo más importante es el tabaco. El alcohol se considera un factor de riesgo tanto aislado como asociado al tabaco; cuando ambos factores se dan conjuntamente el efecto es multiplicativo. Además se ha observado un aumento de este tipo de cáncer como segundo tumor tras tratamiento con radioterapia (31). Hay una asociación limitada con la infección por el serotipo 16 del Virus del Papiloma Humano (VPH) (17). Un pequeño porcentaje de casos se asocia a factores ocupacionales (32). También se describe un efecto protector de la ingesta de frutas y verduras (16).

Como medidas preventivas se plantea el abandono del consumo de tabaco, así como la moderación en el consumo de alcohol.

Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Biriketako minbizia munduan ematen den ugariena da. 2008an, beste 1,1 milioi kasu baino gehiago diagnostikatu direla zenbatetsi da (guztia %12,7), eta gaixotasun horrek jota hildakoak berriz, 1,4 milioi baino gehiago direla (%18,2) (19). EAEn, lehengo heriotza-kausa da minbiziz hiltzen direnen artean. 2003tik 2008ra bitartean ikusitako trakeako, bronkioetako eta biriketako minbizi-kopurua 7.500 baino gehiagokoa izan zen guztira: 6.300 gizonezko eta 1.234 emakumezko. Intzidentzia egonkortzen ari da gizonezkoen artean, eta goraka doa emakumezkoetan; 2008an erasandakoen bostetik bat emakumezkoa zen.

Atlasean hamahiru udalerrri ikusten dira gizonezkoentzat arrisku handiarekin: hamaika Bizkaian (Bilbo, Abanto-Zierbena, Barakaldo, Erandio, Leioa, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Trapagaran) eta bi Gipuzkoan (Errenteria eta Pasaia). Gizonezkoentzat arrisku txikia duten eremuak ikusten dira Bizkaiko Busturialdean, Gipuzkoako zati handi batean eta Araban. Emakumezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua dago Bilbon, Donostian eta Zarautzen.

Tabakoa da arrisku-faktore nagusia; gizonezkoen %90 kasu eta emakumezkoen %83 hari egotz dakizkiokeela zenbatetsi da (16). Beste arrisku-faktore batzuk: lan-ingurunean kartzinogenoen eraginpean egotea (uranio-meatzariak), kartzinogeno espezifikoaren eraginpean egotea (arseniko-oxidoak edota amianto) (32;33) eta atmosferako kutsadura (34).

Prebentzio-neurririk eraginkorrena tabakoa erretzeari uztea da.


El cáncer de pulmón es el más frecuente en el mundo. Se estiman más de 1,1 millones de casos nuevos diagnosticados en 2008 (12,7% del total) y más de 1,4 millones de fallecidos por esta enfermedad (18,2%) (19). En la CAPV es la primera causa de muerte por cáncer. El número total de casos observados de cáncer de tráquea, bronquios y pulmón durante 2003-2008 superó los 7.500, de los cuales 6.300 eran hombres y 1.234 eran mujeres. La incidencia se está estabilizando entre los hombres y continúa aumentando entre las mujeres, así en 2008, uno de cada cinco afectados eran mujeres.

En el atlas, entre los hombres, se observan trece municipios con riesgo elevado: once en Bizkaia (Bilbao, Abanto y Ciérvana, Barakaldo, Erandio, Leioa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran) y 2 en Gipuzkoa (Errenteria y Pasaia). Se observan zonas de riesgo bajo en los hombres de Busturialdea en Bizkaia, y en gran parte de Gipuzkoa y Araba. Entre las mujeres, hay un exceso de riesgo significativo en Bilbao, Donostia y Zarautz.


El tabaco es el principal factor de riesgo, se estima que el 90% de los casos en los hombres y el 83% en las mujeres son atribuibles a él (16). Otros factores de riesgo son las exposiciones a carcinógenos en el medio laboral (mineros de uranio), la exposición a carcinógenos específicos (óxidos de arsénico o el amianto) (32;33) y la contaminación atmosférica (34).

La medida preventiva más eficaz es el abandono del consumo de tabaco.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Raz3n de Incidencia Estandarizata suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



EAEn, 2003tik 2008ra bitartean, larruazaleko 1.502 melanoma erregistratu ziren, eta horrek tumore gaizto guztien %2 esan nahi du. %56 emakumezkoa zen, eta, diagnosia egin zitzaizen unean, batez beste, 58 urte zituzten. Tumore horren intzidentzia gora doa EAEn, mundu guztian bezalaxe.

Herriz herriko mapan, gizonezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua ikusten da Bizkaian, Getxon; Gipuzkoan, berriz, gehiegizko arrisku esanguratsu hori Donostian eta Hondarribian ikus daiteke. Emakumezkoen artean, gehiegizko arrisku esanguratsua Gipuzkoan, bakarrik, gertatu da (Donostia, Andoain, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Urnieta eta Zizurkil).

Badago ebidentziarik eguzki-erradiazioak efektu kartzinogenoa duela esateko (35). Erradiazio ultramorezko (RUV) iturri artifizialen eraginpean egoteak, eguzki-oheta edota eguzki-lanparen eraginpean esaterako, melanoma izateko arriskua igotzen du, batez ere, 30-35 urte baino lehen hasiz gero eraginpean jartzen (20;36). Hauek dira beste arrisku-faktore batzuk: melanoma agertzea familiako historian, eguzki-erredurak izateko joera, nebo atipikoak eta immunosupresioa.

Eguzkia da erradiazio ultramorearen (RUV) iturri garrantzitsua; beraz, prebentzio-neurri eraginkorra eguzkiaren eraginpean gehiegi ez egotea dela jotzen da, batez ere, haurretan eta nerabeetan. Gomendagarria da bistan geratzen den larruazala arropa edo eguzkitako kremaz babestea.


En la CAPV, durante 2003-2008, se registraron 1.502 melanomas de piel, lo que supone el 2% de todos los tumores malignos. El 56% eran mujeres y la edad media en el momento del diagnóstico fue 58 años. La incidencia de este tumor está aumentando en la CAPV al igual que en el resto del mundo.

En el mapa municipal, entre los hombres, se observa un exceso de riesgo significativo en el caso de Bizkaia en Getxo; y en Gipuzkoa este exceso de riesgo significativo se observa en Donostia y Hondarribia. Entre las mujeres hay exceso de riesgo significativo únicamente en Gipuzkoa (Donostia, Andoain, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Urnieta y Zizurkil).


Existe evidencia del efecto carcinogénico de la radiación solar (35). La exposición a fuentes artificiales de Radiación Ultravioleta (RUV), como camas o lámparas solares, aumenta el riesgo de melanoma, sobre todo cuando la exposición se inicia antes de los 30-35 años (20;36). Otros factores de riesgo son: historia familiar de melanoma, propensión a quemadura por luz solar, presencia de nevos atípicos e inmunosupresión.

El sol es la fuente más importante de Radiación Ultravioleta (RUV), por lo tanto, se considera que la medida preventiva más eficaz es evitar la exposición excesiva al sol, especialmente en niños y adolescentes. Es recomendable protegerse del sol con ropa y filtros en las zonas de piel expuestas.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
 Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
 Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Pleura eta peritoneoko mesotelioma gutxitan agertzen den tumorea da, amiantoaren eraginpean egon diren langileen artean izan ezik. Datozen urteetan haren intzidentziak gora egingo duela zenbatetsi da, herrialde askotan galarazita badago ere amiantoa erabiltzea. EAEn, 2003tik 2008ra bitartean, 201 kasu diagnostikatu ziren: %87,5, mediastinoan eta pleuran, eta %11,5, peritoneo-retroperitoneoan. %75 gizonezkoa zen, eta %50, 69 urtetik gorakoa.

Atlasak, gizonezkoetan, arrisku handiko bi eremu azaltzen ditu, eremurik industrializatuena, hain zuzen ere: Goierri (Gipuzkoa) eta Nerbioi ibaiaren Ezkerraldea (Bizkaia). Gehiegizko arrisku hori Bizkaiko herrietan, soilik, da esanguratsua (Abanto-Zierbena, Barakaldo, Erandio, Galdames, Leioa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopuerta eta Trapagaran). Emakumezkoen artean ere bada arrisku handiko eremu bat (Errenteria), baina esanguratsua ez dena.

Amiantoak efektu kartzinogenoa duen ebidentziarik bada. Eraginpean egon daiteke bat, amiantoa erabiltzen duten industrien inguruko etxeetan edota aisialdiko jardueretan (37;38). Aztertutako kasuen %20an, ez da asbestoaren eraginpean egon izanik identifikatu. Horregatik hartzen dute garrantzia arrisku-kofaktore izan daitezkeenek: aurrejoera genetikoa, fruta eta barazki gutxiko dieta, birusak, immunologi arazoak eta serosaren hantura kronikoak (39). Tabakoak areagotu egiten du asbestoaren erasana.

Prebentzio-neurririk eraginkorra amiantorik ez erabiltzea da.


El mesotelioma de pleura y peritoneo es un tumor raro excepto en trabajadores expuesto al amianto. Se estima que durante los próximos años su incidencia aumentará, a pesar de la prohibición del uso de amianto en muchos países. En la CAPV entre 2003-2008 se diagnosticaron 201 casos, 87,5% en mediastino y pleura y 11,5% en peritoneo-retroperitoneo. El 75% eran hombres y el 50% mayores de 69 años.

El atlas, en hombres, muestra dos zonas de riesgo elevado, que coinciden con las áreas más industrializadas: el Goierri (Gipuzkoa) y la Margen Izquierda (Bizkaia), siendo este exceso de riesgo significativo solo en los municipios de Bizkaia (AbantoZierbena, Barakaldo, Erandio, Galdames, Leioa, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopuerta y Trapagaran). Entre las mujeres se observa una zona con mayor riesgo (Errenteria), no significativo.


Existe evidencia del efecto cancerígeno del amianto. La exposición se puede producir en los hogares próximos a las industrias que utilizan amianto y en actividades de ocio (37;38). Hasta en un 20% de los casos no se identifica exposición a asbestos. Por ello, adquieren importancia posibles cofactores de riesgo que incluyen predisposición genética, dieta pobre en frutas y verduras, virus, problemas inmunitarios e inflamación crónica de la serosa (39). El tabaco potencia el efecto del asbesto.

La medida preventiva más eficaz es evitar el uso de amianto.


Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)




AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



2008an, mundu guztian, minbizi kasuen %23 bularrekoak izan ziren, eta %13,5 emakumezko hil ziren bularreko minbiziz (19). EAEn, 2003-2008 aldian, bularreko minbizia izan zen ugariena emakumezkoetan, minbizi kasu guztien %27. Minbizia diagnostikatu zitzaizen unean, 60 urte zituzten, batez beste; %72k 50 urtetik gora zituzten.

Udalerrien mapan, arriskuaren igoera esanguratsua ikusten da Bizkaiko lau udalerrri hauetan: Getxo, Portugalete, Gernika eta Bilbo (IAEI: 1,049).

Badaude hormona- eta ugaltze-faktore batzuk arriskuaren igoerari lotzen zaizkienak, esaterako: menarkia goiztiarra, lehen haurdunaldia berantiarra izatea, menopausia berantiarra eta, azkenik, menopausia ondorengo hormona-terapia. Hala berean, baditugu arrisku txikiagoarekin zerikusia duten hainbat faktore ere: lehen haurdunaldia goiztiarra izatea, erditze anizkoitza eta edoskitze luzea (20;21). Arrisku-faktore horiekin batera, honako hauek aipatu behar dira: gehiegizko pisua eta obesitatea, erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea, alkohola edatea (16) eta familian minbizi kasuak egon izana. Txandakako lanarekin eta hegazkineko langileekin lotu izan da bularreko minbizia emakumezkoetan(40).

Lehen mailako prebentzio-neurritzat, ariketa fisikoa egitea (41), obesitatea saihestea eta alkohol-kontsumoa murriztea gomendatzen dira. Eta bigarren mailako prebentzio-neurri gisa berriz, mamografia bidezko bularreko screening-a egitea eskaintzen zaie, gaur egun, 50-69 urte arteko emakumeei EAEn.


En 2008, a nivel mundial, el cáncer de mama supuso el 23% de los casos nuevos y el 13,5% de las muertes por cáncer en la mujer (19). En la CAPV durante 2003-2008 fue el cáncer más frecuente en las mujeres, el 27% del total. La edad media en el momento del diagnóstico fue 60 años y el 72% eran mayores de 50 años.

En el mapa municipal se observa un aumento de riesgo significativo en cuatro municipios de Bizkaia: Getxo, Portugalete, Gernika y Bilbao (RIEs: 1,049).


Los factores hormonales-reproductivos que se asocian a un aumento de riesgo son: menarquia precoz, primer embarazo a edad tardía, menopausia tardía y terapia hormonal sustitutiva post-menopáusica; los que se describen asociados a menor riesgo son: primer embarazo en edad temprana, multiparidad y lactancia prolongada (20;21). Otros factores de riesgo descritos son: sobrepeso-obesidad, exposición a radiación ionizante, consumo de alcohol (16) e historia familiar de cáncer. Se ha asociado el cáncer de mama en la mujer con el trabajo a turnos y en personal de vuelo (40).

Como medida de prevención primaria se recomienda realizar ejercicio físico (41), evitar la obesidad y reducir el consumo de alcohol. Como medida de prevención secundaria en la CAPV se oferta el screening de mama mediante mamografía a las mujeres de entre 50-69 años de edad.

Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua (IAEI)
Razón de Incidencia Estandarizada suavizada (RIEs)



AE 1 baino handiago izateko probabilitatea
Probabilidad de que el RR sea mayor de 1



EAEEn, 2003tik 2008ra, 545 umetoki-lepoko minbizi kasu erregistratu ziren. Diagnosia egin zitzaizenean 55 urte zituzten, batez beste. Minbizi mota hori gutxiago agertzen da herrialde garatuetan, baheketa egitea (lepoko zitologia) oso hedatua dagoelako.

Udalerrien mapan, soilik Bilbon dakusagu arriskua handiagoa dela, baina ez da esanguratsua.

Nahiz eta Giza Papilomaren Birusak (GPB) eragindako infekzioa beharrezkoa izan tumorea garatzeko, badaude eragin kartzinogenoa duten beste faktore batzuk ere, hala nola, tabakoa eta hormona exogenoak (antisorgailuak, bereziki denbora luzean erabiltzen badira). Minbizi kasuen ehuneko txiki bat tetrakloroetilenoaren eraginpean egoteari lotzen zaio, izan ere, oihalak lehorrean garbitzeko edo metalei grasa kentzeko, lantokian likido hori erabiltzen duten langileen artean gertatzen da eta (40).

